


Zapata-Kaxa batean bizi zen neskatoa



Ramon Molins-ek sortutako ikuskizuna, Ricardo Alcántararen

Tomás y el lápiz mágico ipuinean oinarrituta.



ipuiña

TOMÁS Y EL LÁPIZ MÁGICO

Ricardo Alcántara egile uruguitarrak 1988an idatzi zuen *Tomás y el lápiz mágico* ipuina. Urte batzuk geroago, pertsonaia hura berreskuratu zuen eta beste hiru liburu argitaratu zituen: *Tomás y la goma mágica*, *Tomás y las palabras mágicas* eta *Tomás y las tijeras mágicas*.


Alcántararen lan-zerrenda zabalean 80 argitalpenetik gora daude, hainbat hizkuntzatarara itzulita, eta askotariko sariak jaso dituzte, hala nola Serra d'Or, Haur Literaturako Austral saria, Lazarillo saria eta Apel·les Mestres saria.

SINOPSISIA

Julia zapata-kaxa batean bizi den neskatoa da. Pixka bat aspertzen da, baina, aldi berean, oso seguru sentitzen da bere zapata-kaxaren barruan. Egun batean, arkatx magiko bat aurkitzen du, ate bat marrazten du, eta mundua ikustera ateratzen da. Gero tximeleta bat marrazten du, eta lore bat... halako batean pilota batekin topo egiten duen arte. Neskatoa eta pilota elkarren adiskide egiten dira, elkarrekin jolasten dute eta oso ondo pasatzen dute. Denborarekin, zapata-kaxa beren ametsak gordetzeko txikiegia dela konturatzen dira, eta handik joatea erabakitzen dute.

Istori honetako protagonistak zapata-kaxa baten barruan bizitzeak ematen duen erosotasunean aurkitu du babes. Nahiago du horrela bizi, libreki jokatzeak dakartzan arriskuei aurre egitea baino; babeslekutik joatea, ordea, modu askean jokatzea dela ulertzen dugu.

Adiskidetasuna beldurraren aurkako konponbide ona da.



“Zapata-kaxa baten bizi zen neskatoa” lanean, antzerkiak eta teknologiak oso ikuskizun poetiko eta dibertigarria sortzen dute. Kontalariaren ahotsak gidatuko ditu ikusle txikiak istorioan zehar, eta ahots horrekin nahastuko dira protagonistaren abestiak, haren beldurrez eta fantasiaz osatutako mundua proiektatzen duten irudiak, agertokia menderatzen duen zapata-kaxa, eta horren inguruan magikoki agertzen eta desagertzen diren pertsonaia hegakorrak.

- 3 urtetik gorako helduentzako ikuskizuna.
- Hizkuntza guztietan antzez daitekeen ikuskizuna.
- Ongi pasatzeko eta hunkitzeko ikuskizuna.
- Adin guztietako publikoarentzako ikuskizuna.



GAIAK

Ezagutzen ez dugunarekiko **beldurrak** esperientzia berriak bizitzeko aukera kentzen digu.

Irudimena eta fantasia une zailak gainditzen laguntzen diguten bi baliabide dira.

Adiskidetasuna umeen hazkuntza-prozesuko baliorik garrantzitsuenetako bat da.

Bakardadea alde kaltegarriak.



BELDURRA

FANTASIA

TRUQUILMEIA

ADISKIDETASUNA

BAKARDAEA


ZAPATA- KAXA

Zapata-kaxa etxe eta kartzela gisara

Protagonistak etxetzat duen zapata-kaxa baten inguruan garatzen da ikuskizun osoa.

Hain zuzen ere, obra honek zapata-kaxa baten barrualde klaustrofobikoa baliatzen du ezagutzen ez dugunarekiko (kanpoaldearekiko) beldurra lantzeko. Eta gogoeta egiteko ere bai, pertsonen barne-munduaz, irudimenaren beharraz, eta sarritan bizi dugun itxitasun- eta isolamendu-egoeraz.

Horrela, zapata-kaxa ikuskizuneko eszenografia bilakatuko da; proiektzioen eta ikusizko efektuen laguntzaz, ikusleak haren barrura eta ingurura gerturatuko dira...



Zapata-kaxa gure protagonistaren babesleku bilakatuko da.

Zapata-Kaxa batean bizi zen neskatoa

Egilea

Ricardo Alcántara

Dramaturgia

Ramon Molins

Abestiak

Begonya Ferrer eta Ramon Molins

Musika-konposizioa

Antoni Tolmos

Musika-ekoizpena

Harmònic

Espazio eszenikoaren diseinua

Carles Pijuan

Ekoizpen eszenografikoa

La Baldufa

Ikus-entzunezko ekoizpena, 3D, 2D eta *mapping-a*

Marc Vidal, Jordi Siscart eta Migue S. Monfort

Jantziak

ZUM-ZUM eta Pepa Piquer

Diseinu teknikoa

Sergio Sisques - Stagelab

Argien diseinua

Miki Arbizu

Musika-zuzendaritza

Antoni Tolmos

Ekoizpen exekutiboa

Eva Lega

Zuzendaria

Ramon Molins

Aktorea

Begonya Ferrer

Ekoizpena

ZUM-ZUM TEATRE

FITXA TEKNIKOA



www.zumzumteatre.com
zumzum@zumzumteatre.com

Tel. 630 919 124

Tel. 685 995 020

Konpainia hau



elkarteko kidea da.